

Euskal Estatistika Erakundea (Eustat) erakunde publikoa da

Euskal ekonomiaren eta gizartearen agindutako alderdi guztiei buruz informazio estatistikoa bildu, ekoiztu, aztertu eta zabaltzeko ardura du eta Euskal AEko jarduera estatistikoa koordinatzen du.

Estatistikari buruzko 4/1986 Legeak eta lau urtetik behin egin eta Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen Estatistika-planek definitzen dute bere jarduera.

Jarduera horretarako, Eustatek jarduera-eremu desberdinetan banatutako 103 lagun ditu.

Gasteizko egoitza nagusian eta Gasteizko, Bilboko eta Donostiako hiru lurralde-bulegoetan egiten dute lana lagun horiek.



Euskal estatistika antolakundeko funtsezko atala da Eustat



1986ko azaroaren 25ean sortu zen **Euskal AEko Estatistikari buruzko 4/1986 Legean** deskribatutako funtzio, gaitasun eta egiturarekin.

Lege horrek garatzen ditu Euskal Herriko Autonomia Estatutuak Autonomia Erkidegoari bere xede eta eskumenetarako estatistikak egiteko aitortutako eskumen eskusiboak. Estatistika propioa eta Plan eta Programa Estatistikoaren bidez

jarduteko marko zehatza ezartzen du.

Euskal Estatistika Erakundearen daude Euskal Estatistika Batzordea, Eustat barne, eta beste erakunde ekoizle batzuk, hala nola, Eusko Jaurlaritzako sailak, Foru Aldundiak eta Udalak. Kontsulta mailan Euskal Estatistika Kontseilua dago, eta erakunde ekoizleez gain gizarte eragileek (unibertsitateek, sindikatuek, merkataritza ganbarek,

kontsumitzaileen elkarteek...) eta gizarteko beste ordezkari batzuek ere hartzen dute parte. Eustat da erakunde horretako elementu nagusia eta koordinatzailea.

HELBURUA

Eustat, Euskal AEko administrazio-erakunde autonomoa da eta euskal administrazio publikoei, gizarte eragileei eta gizarteari zuzendutako informazio estatistiko ofiziala garatu, ekoiztu eta zabaltzen du; informazio hori, kalitatezkoa eta objektiboa izateaz gainera zientifikoki egiaztatzen da. Era berean, Euskal AEko estatistika-jarduna zuzendu eta koordinatzen du eta estatuko eta nazioarteko estatistika-esparruan laguntzen du.



IKUSPEGIA

Eustatek Euskadiko erreferentziatzko estatistika-bulegoa izan nahi du, informazio estatistikoa ematen buru, eta bere metodologiengatik eta bere produktuak eta zerbitzuak erabiltzaileen beharretara egokitzeagatik baloratzen eta ezagutzen den erakundea ere izan nahi du.

Bere helburuak hauek dira:

- Gizarteak erakundea gehiago ezagutzea.
- Erabiltzaileek beraien esku jartzen den informazioaz duten asebetetze maila haztea.
- Prestatutako eta profesionalki kualifikatutako giza taldea sustatzea.
- Beste erakundeekin koordinazioa eta lankidetzeta hobetzea.
- Gizartearekin duen konpromisoa sustatzea
- Europako estatistiketako Jardunbide Egokien Kodearen markoan bere sistema estatistikoaren kalitatea hobetzea.

Eustaten bailo finkatuak

BALIOAK

- Burujabetasun profesionala
- Erabiltzailearenganako orientazioa
- Taldeko lana
- Bere produktu eta zerbitzuen kalitatearekiko konpromisoa
- Berrikuntza
- Konfidentzialtasuna
- Lankidetzatza



Burujabetasun profesionala

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna denez, Ekonomia eta Ogasun Sailari atxikita dago, baina gobernuarekiko erabateko independentzia du estatistika ofiziala ekoizterakoan, aztertzerakoan eta zabaltzerakoan. Horren bidez, erabateko inpartzialtasuna bermatzen da informazio estatistikoa tratatzerakoan.

Estatistikak egin eta publiko egiteko, egutegi zorrotz bat erabiltzen da eta egutegiaren berri Eustaten web orrian ematen da urte bakoitzaren hasieran, estatistika-programetan ezarritakoaren arabera.

Erabiltzailearenganako orientazioa

Bere bokazioa estatistika-erabiltzaileen beharrak betetzea eta ahalik gehienengana heltzea da.

Erabiltzailearenganako orientazioak batez ere esan nahi du erabiltzaileen estatistika-beharrak ezagutu eta ulertu behar direla eta horiek betetzen saiatu behar dela. Hori dela-eta, herritarren, komunikabideen, enpresen, administrazio publikoen, sindikatu eta enpresa-erakundeen, ikastetxeen, nazioarteko erakundeen, ikertzaileen, unibertsitateen... beharrei adi egoten da Eustat.

Eustaten xedea, azken finean, interes orokorraren xede bera da. Zerbitzu publikoa da bere jardueraren iparra, hau da, estatistikak egiten ditu gure oraingo errealitatea eta izango duen eboluzioa azaltzeko eta errealitate hau munduko gainerako errealitateekin alderatu ahal izateko.



Kalitateari eta berrikuntzari hitzemandako taldeko lana

Taldeko lana

Eustatek bere egindako balioetako bat taldeko lana da. Ezinbesteko bitartekoa da estatistika-eragiketak abian jartzen aritzen diren profesionalak modu eraginkorrean koordinatzeko, estatistika-eragiketa horiek Estatistika-plan eta Programek ezarritako epeetan ahalik kalitaterik handiena lor dezaten.


Lantalde ugari dago eta horien xedeak ere ugariak dira; haiek nabarmentzen dira: Estatistika-eragiketa berriak atera, daudenak hobetu eta berritu, berriazko alderdiak tratatu, hala nola, kalitatea, konfidentzialtasuna, informazio-, hedapen- eta komunikazio-sistemen segurtasuna.

Konpromisoa kalitatearekin

Eustatek konpromiso handia du bere produktuen eta zerbitzuen kalitatearekin eta erakundearen osoko kalitatearekin eta bikaintasunarekin. Konpromiso honengatik garatzen ditu Europako Estatistika Sistemaren Kalitateari buruzko Adierzpenean ezarritako printzipioen jarraipena egiteko tresna egokiak (agiri metodologikoak, eragiketen kalitate-fitxak, metadata argitaratu...) eta erabiltzaileen esku jartzen ditu.

Berrikuntza

Alderdi hau funtsezkoa da Eustaten jardueran, eta bide desberdinen bitartez garatzen da: estatistika-eragiketen etengabeko berrikuntza metodologikoa edo teknologikoa, I+G+b proiektuak eta hedatzeko eta komunikatzeko hobekuntza berritzaileak.



Konfidentzialtasuna

Eustaten jardueran erabat bermatzen da informatzaileen (etxeen, banakoen, enpresen, administrazioen eta bestelakoen) sekretu estatistikoa, emandako informazioaren konfidentzialtasuna eta soilik helburu estatistikoetarako erabiliko dela. Horrek esan nahi du ez duela bere informatzaileak identifikatzeko edo indibidualizatzeko inolako informaziorik ematen eta beste inongo erakunde ezin dela sartu Eustaten fitxategi informatizatuetan.

Langileen eta sistema informatikoen jarduera-protokoloak garatu dira, Estatistikari buruzko Legeak adierazten duen Sekretu Estatistikoa eta Datuak babesteko Legeak eskatzen duen banako datuen babesa bermatu ahal izateko.

Lankidetzaz

Gure autonomia erkidegoan, estatuan edo Europar Batasunean beste erakundeekin lankidetzaz aritzea bultzatzen eta garatzen da Eustaten.

Mota askotako lankidetzak daude: lankidetzaz-hitzarmenak, beste erakundeekin parte hartu proiektuetan edo laneko taldeetan, europar mailako “workshop-etan” parte hartu, Eustatentzako interes bereziko gaiiei buruzko nazioarteko biltzarrek edo mintegiak antolatu...



Eustatek eskaintzen dituen zerbitzuak

Eustaten zerbitzu nagusiak AENOR erakundeak urtero ziurtatzen duen Zerbitzuen Kartan deskribatuta daude. Honakoak dira:

- Webean informatzeko eta hedatzeko zerbitzua
 - Webaren eta datu-bankuaren bidez, etengabe eguneratutako informazioa eskaintzen da. Informazio hori Estatistika-plan eta programen eragiketen emaitzetatik etortzen da, batez ere.
 - “Kontsulta lasterren” zerbitzua eta “neurritza egindako” eskaerak.
- Laguntza teknikoa eta metodologikoa emateko zerbitzua
- Formakuntza zerbitzua
- Argitalpen zerbitzua

Zerbitzuen Kartan daude zerbitzu horiek eskaintzean Eustatek hartzen dituen konpromisoak eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak. Gainera, urtero argitaratzen dira web orrian kartako konpromisoak zenbat bete diren adierazten duten emaitzak.



Kezkarik nagusienetako bat estatistikaren kultura eta kontsumoa haztea da

Hedatzeko forma eta euskarri ugari dago (prentsa-oharrekin eta paperean argitaratzearekin hasi eta datu-bankuan on-line sartu eta RSS zerbitzura arte) eta horiek kartara eskaintzen diote informazioa erabiltzaileari. Eskariari erantzuten diote, erraz ulertu eta laburtu daitezke eta tratamendurako malgutasun eta konplexutasun handia dago.

Urtero bere argitalpenen 15.000 ale baino gehiago banatzen ditu; 150 prentsa-ohar argitaratzen dira eta Eustatek emandako datuei buruzko 1.800 albiste sortzen dituzte komunikabideetan; kartarako datuen 500 eskari inguru prozesatzen dira; 1.500 telefono-kontsulta inguru erantzuten dira eta 800.000 erabiltzailek baino gehiagok erabiltzen dute web gunea eta 4.600.000 sarrera izaten ditu.

Era berean, 10 newsletter egiten dira urtero eta posta elektronikoz igortzen zaizkie herri-administrazioetako 500 erabiltzaileri eta estatistika-informazioaren 10.000 hornitzaile ingururi (enpresei, merkatuei, hotelei...). Euskarri elektronikoen berrien arabera, hedatzeko modu tradizionalagoak abantaila handiekin ordezkatu ditzakete newsletter hauek.



Eustaten web orrian informazio guztia dago

Eustaten web orrian erakundeari buruzko informazio guztia dago, baita Euskal AEko mota askotako gaiei buruzko estatistika-datuak ere (biztanleria, ekonomia, gizartea, lurraldea eta ingurumena, informazioaren gizartea, I+G+b) eta dagozkien estatistika-taulak. Honakoak ere badaude: Prentsa-oharrak, txostenak eta dokumentuak, metodologia, datu-bankua, etab.

Interneteko helbidearen bidez, 200 estatistika-adierazle baino gehiagotarako sarrera dago, informazioa udalerrika banatuta.

Hilero edo hiru hilean behin honakoei buruz sortzen den koiunturazko informazioa: Ezkontzak, jaiotzak, heriotzak, industria-ekoizpena eta prezioak, hiruhileko BPG, turismoa, kanpo-merkataritza, enplegua, langabezia... urte bakoitzaren hasieran argitaratutako egutegian aurreikusitako datan sartzen dira Interneten.



Edukietara sartzeko orrialdea

Hautatutako gairen gaineko deskripzio laburra

The screenshot shows the Eustat website interface. At the top, there is a navigation bar with the Eustat logo and the text 'Euskadi.net'. Below this, there are several menu items: 'Hautatutako', 'Erakunde publikoa', 'Funtsezko atala', 'Helburua, ikuspegia', 'Balioak', 'Zerbitzuak', 'Informazioa', 'Gure webgunea', and 'Bat egin gurekin'. The main content area is titled 'Hautatutako' and features a search bar and a list of results. The results are organized into sections: 'Hiruhilekoen behin-behinekoak' (Quarterly preliminary figures), 'Urtekoak' (Annual figures), and 'Lanaren erakina' (Employment). Each section contains a list of statistical indicators with their respective dates and flags. A navigation menu at the bottom includes icons for 'Aurrerakoa', 'Grafikoak', 'Prentsa liburuak', 'Trendak', 'Metodologia eta faktoreak', 'Hemendik buruz', 'Definizioak', 'Kontu eta txostenak', and 'Gaitasunak'. The footer contains contact information for Eustat, including the address 'Euzko Estatistika Institutua', phone number '945 300 000', and website 'www.eustat.eus'.

Hautatutako gairen gaineko informazio estatistikoa


Gai bereko beste elementuetarako sarbidea

Datu-bankua webean: Estatistika-serieak eta aldagaien hautaketa

Hedatzeko datu-bankuan biltzen da Eustatek eta kanpoko iturriek denboran zehar (serieak) egindako estatistika-eragiketen informazioa. Informazio hori guztia on-line eskaintzen zaio jendeari Internet bidez.

Datu-bankuaren motorra estatistika-hedapeneko PC-Axis eta Px-Web softwarean oinarritzen da, Suediako Estatistika Institutuak egin zen softwarean, alegia. Produktu hau erabiltzeko oso erraza da, erabiltzailearen eta softwarearen komunikazioa leihoz eta menuz osatutako sistema baten bidez egiten baita. Horri esker, erraza da funtzioen eta aukeren artean “nabigatzea” eta erabiltzaile bakoitzak beharrezko informazioa bere kabuz lortzea.

Fitxategia PC-Axis formatuan kargatu daiteke beheara. Formatu horretan aldagaien balio zehatzak lotu daitezke, taulako aldagaiak aurkezteko ordena aldatu eta grafikoak eta mapak egin edo formatu desberdinetan aukeratu, esaterako, excel formatuan edo testu lauko fitxategi formatuan.



Emaitzako taulak eratuak dituzten leihoen eta menuen hautagailua

Emaitzako taula aurkeztzeko den formatuaren hautagailua

Formatuak: Taula, Excel, PDF, etc.

Datu-bankua webgunean: emaitzen taula eta beste aukera batzuk

Hotel-establizimenduetako sartutako bidaiarien kopurua per periodo, jatorria, eskualdea, lurraldea eta hilabetea

	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua
2010								
Guztira								
Guztira								
Sutela	112.515	132.087	161.985	184.000	202.238	204.7		
Arabia	17.223	20.040	35.335	29.413	30.372	31.4		
Bizkaia	40.214	43.528	61.600	73.983	75.858	76.5		
Bizkaia	55.168	68.519	74.950	90.834	96.006	96.8		

Hotel-establizimenduetako sartutako bidaiarien kopurua per periodo, jatorria, eskualdea, lurraldea eta hilabetea

Mapa eskuragarria: A/Eko Lurraldeak

Aldagai: Urtaria

Sailkapena: Kosturik

Maparen tamaina: 100 %

Hotel-establizimenduetako sartutako bidaiarien kopurua per periodo, jatorria, eskualdea, lurraldea eta hilabetea

hilarria: Urtaria

periodo: 2010

jatorria: Guztira

eskualea: Guztira

- 0 - 233 (1)
- 233 - 214 (1)
- 214 - 168 (1)
- 168 - 615 (1)
- 615 - 0 (0)

Iturria: Euskal Estatistika Erakundea

Marat: Eustat

Taulak eskaintzen dituen aukerak, besteak beste: grafikoak eta mapak sortu, excel moduan esportatu, inprimatu eta abar

Hautatu diren aukerak biltzen dituen taula

Jendeario erantzuteko zerbitzuak

Eustaten egoitza nagusia (Vitoria-Gasteiz)

Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945017517

Faxa: 945017501

e-maila: informacion@eustat.es



Kontsulta lasterren zerbitzua

Tel.: 945017517

Faxa: 945017501

e-maila: informacion@eustat.es

Bilboko lurralde bulegoa

Máximo Aguirre, 18-Bis, 3. solairua

48011 Bilbao

Tel.: 944031375

Faxa: 944031378

e-maila: informacion@eustat.es



Eustaten liburutegia

Tel.: 945017519

Faxa: 945017501

e-maila: biblioteca@eustat.es

Donostia-San Sebastiángo lurralde bulegoa

Okendo, 16-3. solairua

20004 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943023180

Faxa: 943428151

E-maila: informacion@eustat.es



Metodologia-aholkularitzako zerbitzua

Tel.: 945017579

Faxa: 945017501

e-maila: peticiones@eustat.es